



Sistematizazioa. Jardunaldia

Klima Aldatzen denean, Haiek Historia Aldatzen dute



Sarrera	3
Lehenengo mahai-ingurua: Klima-aldaketaren inpaktuak Saharaz hegoaldeko Afrikako genero-ekitatean	4
Despertar / Esnatzen dokumentalaren emanaldia eta kozuzendariarekin elkarrizketa	6
Bigarren mahai-ingurua: Klimaren eta genero-ekitatearen aldeko ekintza toki-mailatik mundu-mailara	7
Ondorioak	9

Sarrera

Klima Aldatzen denean, Haiek Historia Aldatzen dute jardunaldia, klima-aldaketak testuinguru zaurgarrietako, hala nola afrikarreko, genero-ekitatean duen inpaktuaz jabetzeko helburuarekin egin zen. Emakumeek klima-aldaketari egokitzeko eta haren ondorioak arintzeko abiatutako jardunbideak balioestea izan zen antolatzeko arrazoietakoa bat; eta, horiek oinarri, klima-krisiari eta genero-desberdinkeritari aurre egiteko konponbideak modu kolektiboan bilatzen laguntzea.

2023an **Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional GGKE**ak izen berarekin egindako sentsibilizazio-kanpainari amaiera emateko antolatu zen ekintza, *Klima aldaketaren inpaktua genero-ekitatean, Kébémér Departamentuan (Senegal)* ikerketan oinarrituta. Ondorio deigarrienen artean, azpimarratzekoa da landa-inguruneke emakume eta neskatok (eskolatzeko tasa baxuekin) klima-aldaketaren kalte gehienak jasotzen dituztela. Haiek dira zaintza-lanetan oinarritutako etxeko lanen arduradunak: etxeaz arduratzen dira, seme-alaben zaintzaz, egurra eta ura biltzeaz, eta, gainera, bizi diren landa inguruneke nekazaritza-lanez arduratzen dira.

Jardunaldia Bilborock Bilboko kulturgunean antolatu zen 2023ko abenduaren 4an, astelehenean, 16:00ak eta 20:00ak bitartean. Miguel Pérezek, Bilboko Udaleko Garapenerako Lankidetasun Eremuko arduradunak, eta Irene Ortiz de Urbinak eta Maitane Lópezek, Nazioarteko Elkartasuneko teknikariek, aurkezpena egin zuten. **Klima aldaketaren inpaktuak Saharaz hegoaldeko Afrikako genero-ekitatean** mahai-ingurua antolatu zen, *Despertar - Esnatzen* dokumentala proiektatu zen, Alfonso Moralek eta Mikel Aristregik zuzendutakoa, eta **Klimaren eta genero-ekitatearen aldeko ekintza toki-mailatik mundu-mailara** eztabaida egin zen. Ondoren sakonduko dugu ekintza horien gainean.

Ekitaldira 42 pertsona joan ziren (16 gizonezko eta 26 emakumezko) eta streaming bidez 53 pertsona egon ziren. Jardunaldia Nazioarteko Elkartasuneko *YouTube* kanalean dago ikusgai eta Bilboko Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari esker antolatu da.

Lehenengo mahai-ingurua: Klima-aldaketaren inpaktuak Saharaz hegoaldeko Afrikako genero-ekitatean

Mari Mar Alonsok, Ihebeko Klima-Aldaketaren zuzendariak, moderatu zuen lehenengo mahai-ingurua, Saharaz hegoaldeko Afrikan klima-aldaketaren inpaktuak genero-ekitatean jorratzeko helburua zuena. Horretarako, ondorengo hizlari adituak joan ziren:

Viviane Ogou

Europar Batasuneko eta Afrikako harremanetan, Saheleko geopolitikan eta Maliko estabilizazio prozesuan ikertzaile aditua. Puerta de África elkarteko fundatzaile eta presidentea, eta migratzaileen eskubideen aldeko ekintzailea. Zenbait zientzia argitalpen eta prentsako analisi artikulu ditu.

Marcelle Mardon

Hiri-garapen jasangarri eta komunitarioaren jarraitzaile sutsua den Zimbabweko arkitektoa. Erresuma Batuan egin zituen unibertsitateko ikasketak eta UPV/EHUen energia eraginkortasunean jasangarria den eraikuntzaren inguruko masterra egin zuen. 2009an Euskadira etorri zenetik, Hegoalde globaleko hirietan pobrezia murriztera bideratu du lana.

Arantza Chacón

Sevillako Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziaduna eta garapenerako lankidetzan eta giza eskubideetan espezializatua. Bere ibilbide profesionala desplazamendu behartuekin, babesarekin eta nazioarteko laguntzarekin lotuta dago. Gaur egun, ZEHAR-Errefuxiatuekin entitateko zuzendaria da.

Mahai-ingurua irekitzeko, klima-krisia eta Sahel eskualdean bakea eraikitzea testuinguruan jarri ziren. Viviane Ogou ikertzaileak azaldu zuenez, guneak inbasio terrorista jasan zuen, zenbait operazio militar eta «herritarrentzako etorkizunerako begiradarik» gabeko gobernatzaileen estatu-kolpeak. «Oinarrizko arazoa mehatxu terrorista gisa kokatu zen eta ez zen planteatu arazoaren muina basamortuak aurrera egin ahala handitzen zen baliabide eskasia zela», esan zuen. **«Zertan lagundu izango luke ikuspegi ekologista eta feministak? Alde batetik, konturatu izango lirateke komunitateen arteko gatazkek gora egiteko arriskuaz, eta, neurri militarrek hartu beharrean, gatazkek ebazteko neurri askoz errestauratiboagoak jarri izango lirateke abian, elkarrizketa prozesuak errazteko. Beste alde batetik, aurreikusi izango litzateke desplazamenduaren ondoriozko gatazka aldi berean bizi baldintzen aldaketaren ondorio zela, basamortuaren aurrerapena zela eta».** Ogouren arabera, ikuspegi militarretik egindako azterketak genero arrakala handiagotu egin zuen, baliabide naturalen eta mineralengatiko borroka sortu zituen, eta baita indarkeriaren «kutsatze efektua» ere.

Bere aldetik, Marcelle Mardon Afrika landagune bezala ikusteko ekialdeko sinesmena aipatzen hasi zen. «2050. urtean, Afrikako biztanleriaren %60 hirietan biziko da. Gaur egun, hirietako biztanleen erdia prekaritate-egoeran bizi da eta talde horren barruan %50 emakumeak dira. **Genero-berdintasuna eta eraikuntza jasangarria funtsezko lokarriak dira klima-aldaketa arintzeko**», zehaztu zuen. Emakume horien gehiengoak mantentzeko lan «informalak» egiten dituela azpimarratu zuen Mardonek. Horrez gain, orokorrean, Mardonek ohartarazi zuen munduko biztanleen %70 hirietan biziko dela, zati handi batean klima-aldaketa eragiten duten espazioetan, eta gogorarazi zuen Hegoalde globalean «gas horien %14 baina ez dugu[la] sortzen».

ZEHAR-Errefuxiatuekin erakundeak egindako *Deserrotuak* argitalpenean jasotakoa azaldu zuen Arantza Chacónek. Bi funtsezko gai azpimarratu zituen: zer ulertzen dugu klima aldaketa gisa eta desplazamenduek horrekin duten lotura. ZEHARen onartzen dute sistema neokapitalistaren ondorio dela, «**bere burua elikatzen jarraitu behar du eta horretarako begirada Hegoalde globalean dauka jarrita**». Chacónek gaineratu zuen, gaur egun pertsona asko uzten direla marjinetan «kapitela pilatzen jarraitzeko beharrik, sortu ditzagun ongizate espazioak». Horren ondorioz, landaguneetatik hiriguneetarako desplazamenduak egoten dira eta handik beste lurraldeetara. «Europara heltzean, heltzekotan, mugak ixteko eta seguruago bihurtzeko politikekin marjinetan uzten dira pertsona asko. Horregatik, **nekropolitikaz hitz egin dezakegu**». Garrantzitsua da aipatzea prozesu horretan emakumeek ez diotela indarkeria sufritzeari uzten.

Bestelako kontuen artean, gobernantza klimatikoan emakumeen ahalduak jorratu zen, lanpostu tekniko gehienak gizonezkoek hartzen baitituzte arlo horretan. Hala ere, ikus daiteke lurraldearen defendatzailearen rola errepikatzen dela, **komunitatea zaintzeko ardura hartzen duten emakumeak izaten dira** eta lehenengo lerroan egoten dira megaproiektuen aurka, baliabide naturalak defendatzen... Hizlariak ados egon ziren behar batzuk hautemateko orduan, hala nola klima-krisiaren inguruan dibulгатzea globalizazioaren ondorioz gehien erabilitako hizkuntzetan, informazioa edozein komunitate edo gunera heldu ahal izateko. Horrez gain, azpimarratu zuten laguntza handikoa izan daitekeela multinazional handiek duten landagune zein hiriguneetako gizartearen

desplazamenduen inguruko **informazio geostrategikoa gizarteratzea**, zientziak klima-krisia bultzatzen dituzten patroiak identifikatzeko.

Azkenik, publikoak **klima-errefuxiatuaren** inguruan galdetu zuen, oraindik aitortzarik ez duena. «Ministerioak berak, asiloa eskatzeko datuak jasotzen dituenak, ez ditu asilo eskaeren atzean dauden istorioak aztertzen eta ez du arrazoiak ikusi ahal izateko irakurketarik egiten», erantzun zuen Chacónek. ZEHAR-Errefuxiatuekin erakundeak «nazioarteko babeserako eskakizunen inguruko europar politikekin ez [ziren] oso optimista» azaldu.



Despertar / Esnatzen dokumentalaren emanaldia eta zuzendariarekin elkarrizketa

Jardunaldiarekin jarraitzeko, *Despertar-Esnatzen* dokumentala proiektatu zen, Alfonso Moralek eta Mikel Aristregik zuzendutakoa. Senegaleko iparraldean dagoen Kébémér Departamentuko landaguneko emakumeen erresilientzia eta egokitzapen ahalmena islatzen da. Emakumeen zenbait testigantza bitartez, emakumeak etxearen, janaria prestatzeko ura eta egurra biltzearen eta seme-alabak heztearen arduradunak direla ikusten da. Horiez gain, nekazaritza eta arrantza sektoreko lanak eta diru-sarrerak sortzeko bestelako lan gehigarriak egin behar dituzte. Haien azalpenetan guztiz kontziente dira klima aldaketaren eraginez. Dokumentalean lehenengo pertsona kontaktatzen digutenez, klima-aldaketa arintzeko eta hari egokitzeko neurriak larritasunarekin hartzen dituzte. Filma Nazioarteko Elkartasuna – Solidaridad Internacionalek ekoitzi du, FADEC – Nord, Association des juristes sénégalaises eta Réseau des femmes activistes de Kébémér erakundeen laguntzarekin, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketarekin.



Proiektzioa eta gero, zuzentzaileetako batekin, Mikel Aristregirekin (Hernani, 1975) solasaldia egon zen, **Alfonso Moral** (Valladolid, 1977) orain Berlinen bizi delako. «Argi utzi nahi genuen protagonistak emakumeak zirela, beraz haien istorioak beraiei kontaktatzen utzi genien», azpimarratu zuen Aristregik. Horrekin aipatu zuen filmak ez duela off-eko ahotsik eta emakumeak direla dokumentalean beraien burua aurkezten duten testigantza iturri bakarra. Pribilegioen aldearen eta elkarrizketatutako emakumeek zaintza lanetan daukaten pisuaren inguruan galdetzean, Aristregik komentatu zuen halako lanek «hasieran asko ohartzen ez duzun zulo handia uzten dute[la]». Zentzu horretan, gaineratu zuen, «asmo oso zintzoak izan arren eta galdu daitekeen istorio hori kontatu nahi arren, egun horietan lanak zure denbora guztia hartzen du. Gero, itzuli eta editatzean, testigantzak distantzia gogoetatsuagotik berrikusten dituzu,

gehiago hunkitzen zara eta sentimenduarekin bakeak egiten dituzu». Gainera, zuzendari gisa Kébémerrera berriro itzuliko litzatekeela adierazi zuen, urte batzuetako garapena jasotzeko: «eragiketa oso interesgarria da aldaketa jasotzeko panoramara itzultzea».

Bestelako gaien artean, publikoak gizonen inguruan galdetu zuen: «Emakumeak goiz altxatzen, seme-alabak zaintzen... ikusi ditugu. Baina, non daude gizonak?» Aristregik ondorengoa erantzun zuen: «Horri ezin diot erantzun, gu bertan egon ginen bitartean emakumeak arduratu ziren mantenuaz, otorduez, baina gizonak...»

Bigarren mahai-ingurua: Klimaren eta genero-ekitatearen aldeko ekintza toki-mailatik mundu-mailara

18:30ean azkenengo mahai-ingurua hasi zen, klimaren eta genero-ekitatearen aldeko ekintza toki-mailatik mundu-mailara jorratzeko xedearekin. Dieynaba Sowk moderatu zuen, genero eta feminismo ikasketetan doktoregaia UPV/EHU. Horren inguruan hitz egiteko, ondorengo hizlari adituak egon ziren:

Laurence Thieux

Madrilgo Complutense Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetako ikertzaile, aholkulari eta irakaslea, eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko doktorea Nazioarteko Ikasketa mediterraneoetan. *Klima-aldaketaren inpaktua Kébémér Departamenduko (Senegal) genero-ekitatean* ikerketaren autoreetako bat da.

Fatimatou Barry

Ekonomia ikaslea eta Haaly Pular elkarteko lehendakariordea. Elkartea emakume migratzaileei laguntzen die eta Gineako komunitateetako bizitzan hobekuntza zehatzak sustatzen ditu. Fatimatouren helburua inklusioa eta aukera berdintasuna bultzatzea da.

Aurora Moreno

Nazioarteko Harremanetan eta Afrikako gaietan espezializatutako kazetaria. Carro de Combate kolektiboko kidea. Duela hamar urte baino gehiago, *porfinenafrika.com* bloga editatzen du eta *El cambio climático en África, efectos estrategias de adaptación y soluciones* liburua egilea da.

Laurence Thieuxek tokikotasunera joateko garrantzia azpimarratu zuen, hein batean «testuinguruen heterogeneotasuna funtsezkoa» delako. Senegaleko administrazioekin izandako tratuan oinarrituta, Thieuxek esan zuen ikusi zutela «ez dagoela erresilientziatik sortu daitezkeen proiektuak bultzatzeko beharrezkoa den lotura edo koordinazioa». Genero ikuspuntuari dagokionez, nabarmendu zuen gune horretan **erronka asko pilatzen direla, genero indarkeriari lotutako kontuak, emakumeak familiaburu izatearekin lotutakoak, zailtasun ekonomikoak direla eta, gizonak askotan ez daudelako**.

Ginea Conakryko emakumeak klima-aldaketaren aurkako ekintzaile gisa egiten dutenaren inguruan, Fatimatou Barryk aurre egin beharreko zenbait zailtasun birgoratu zituen. Esate baterako, **saso lehorra orain ohi baino luzeagoa da, eta, euriak, aldiz, ugariagoak dira, uholdeak eragin eta uztak hondatzen dituzte. Ondorioz, zailagoa da ur edangarria lortzea, normalean emakumeena den ardura**. Era berean, elikagaien prezioetan ere klimarekin lotutako zailtasunak nabaritzen dira. «Otordu guztietan arraina jaten da, baina gero eta urriagoa da, arrantzaleentzako zaila baita orain ibaietara heltzea; horrenbestez, arraina garestiagoa da», adierazi zuen.

Aurora Morenok, bere aldetik, tokikotasunaren inguruan aipatutakoa nazioarteko harremanekin lotu zuen. Hegoalde globalean gertatzen dena munduko beste tokietan gertatzen denarekin lotuta dagoela argudiatu zuen: «**Klima-aldaketa Iparralde globaleko herrialdeen bi mendeko industrializazioaren ondorioa da**». Morenoren aburuz, gogoratu beharra dago Afrika Ekialdeko kaletan arrantza egitea baimentzen duten Europar Batasuneko arrantza akordioak, baita «arrain-irin fabrikak» ezartzea ere, «zeinak arrain txikiak erabiltzen dituzte[n] gero Iparraldeko herrialdeetara saltzen zaizkien irinak egiteko». Gainera, zehaztu zuen «oso zaila d[el]a bizirautetik haratago doazen nekazaritza-dinamikak sortzea».

Lehenengo zatian aurkeztu bezala, klimaren efektuek eragin handiagoa daukate emakumeengan, eta, aldi berean, haiek dira gehien **mobilizatzen direnak inpaktuak arintzeko neurriak hartzeko**. Fatimatou Barry Ginea Conakryko adibidea jarri zuen: «Klimara egokitutako nekazaritza jasangarrian oinarritutako landagunea garatzeko tokiko aukera abian jarri dute emakumeek». Horrekin, uzten txandaketari, tokiko haziekin landatutako espezien dibertsitateari, edo terrazetan landatzeari egin

zion erreferentzia. Gainera, emakume horiek uzten egoeraren berri emateko hilabetero biltzen dira eta ezbeharretarako bilketa funtsa abian jarri dute.

Horrekin lotuta, Morenok giza eskubideen aldeko emakume ekintzaile talde asko daudela gaineratu zuen, «**oraingo behar eta aukerei egokitutako ohiko praktikak berreskuratzen lan egiten dute**», hala nola Klimaren Aldeko Emakumeen Asanblada. Zentzu horretan, Morenok mahaigainean jarri zuen emakumeek egiten dutena kontatzeko iturrietara jotzearen balioa. Kontinentean klimaren babeserako zenbait emakume ekintzailek instituzio eta parlamentuei aurre egin dietela

nabarmendu zuen Morenok, baina ez dute ekialdekoek bezain besteko ospea lortu. Tradizioari garrantzirik kendu gabe, Thieuxen ustez, emakume horiek ahalduntzeko beste beharrezko faktorea teknologia eskura izatea da.

Klima-aldaketarekiko ardurari dagokionez, hizlari guztiak ados egon ziren, ekintza guztiak ez daukate eragin berdina: «Biztanleria aberatsaren eta txirotutakoaren arduraren ehunekoen aldea sekulakoa da», argudiatu zuen Morenok. Hori dela eta, **Iparralde globalak Hegoaldeari sortutako inpaktua ordaintzeko modua** mahaigainera atera zen. Thieuxek proposatu zuen tokian bertan konponbideak bilatzeko erabilgarriak izan daitezkeen proiektu mota horiek **Ekialdeko finantzaketa** izan dezaketela. Ostean, eztabaidarako gaia bota zuen: «Iparraldeak ez baldin badio kontsumitzeari utziko eta konfort gunetik irtengo ez bada, elektrifikazio edo baliabide natural batzuk ustiatzeko hobekuntzak eskaintzeko herrialde horietan inbertitu behar du».



Ondorioak

Publikoarentzat jardunaldia interesgarria, beharrezkoa, zaindua eta antikoloniala izan zen. Jasotako ondorioetako batzuk dira ondorengo hauek:

- 1** Garrantzitsua da Hegoalde globala heterogeneotasunetik begiratzea eta aztertzea, ez «bakarra» balitz bezala, eskualdeetako ezaugarri desberdinak nabarmendu behar dira. Gainera, Afrika «landagune amaigabe» gisa bezala ikusteari utzi behar diogu eta bete-beteko hazkunde eta hiri-garapenean dagoela ikusi behar dugu.
- 2** Onartu beharra dago klima-aldaketak Afrikan sortzen dituen efektuak Iparralde globalak gune horiekin izandako harremanaren ondorio direla: baliabideen ustiaketa, kolonialismoa... Halaber, oraindik ere beharrezkoa da onartzea klimaren gaineko ekintzen inpaktua Iparralde globalean (aberatsagoa) eta Hegoaldean ez dela berdina. Kontuetako bat Ekialdeak sortutako kaltea konpentsatzean datza.
- 3** Klima-aldaketaren efektuen inpakturik handiena Afrikako gune batzuetako emakumeek jasaten dute, hala nola Senegaleko edo Ginea Conakrykoek, beraiek baitira bizirauteko lanen arduradunak, esate baterako, ura biltzea, uztak kontrolatzea, eta baina familiako zein etxeko zaintza lanak ere. Gizonak, haien aldetik, urrun egotea edo ez egotea suposatzen duten lan ekoizkorretan jarduten dira.
- 4** Kaltetun handienak izan arren, emakumeak dira **eraginak arintzeko neurrien alde mobilizatzen direnak**, horietako batzuk klimara egokitutako nekazaritza jasangarrian oinarritutako landagunea garatzeko tokiko aukerak sortzea suposatzen dute edo lurraldearen defendatzaile gisa makroproiektuen aurka jartzea. Era berean, ekintza horiek emakumeak ahalduntzeko bidea dira, haien bizi-baldintzak hobetu baitaitezke, adibidez, uztak autokontsumora bideratzen edo zaintza kolektiborako asanbladak sortzen.
- 5** Instituzio eta gobernuek genero ikuspuntu ekologistatik abiatutako analisiak egitea ezinbestekoa da. Bestalde, klima dela eta desplazatu edo errefuxiatuak aitortu behar dituzte eta pertsona zaurgarrienak marjinetan uzten ez dituzten migrazio-politikak abian jarri.

derechoshumanossi@sol-inter.org
T. 609 56 78 67
solidaridadsi.org

